# I. Atala / Sección I

# Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
# Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Foru Aldundia / Diputación Foral

### Osasun eta Finantza Saila

**1096/2010 FORU AGINDUA, apirilaren 30ekoa; honen bidez nekazariek eta abeltzainek gasolioa erosteagatik jasaten dituzten Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuoten itzulketa partzialerako prozedura eta izapideak ezarri dira.**

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Ekonomi Itunean ezarrita dago zerga bereziak itundutako zergak direla eta Estatuak ezartzen dituen funtsezko arau eta arau formal eurek eraenduko dituztela.

Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeko 52 ter artikulu berrian (2010eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondoreak eta indarraldiak ez dauka mugaegunik), hain zuzen ere lehenengo idatz-zatian, ezarri da nekazariek eta abeltzainek eskubidea dutela gasolioa erosteagatik Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeko 50.1 artikuluko 1. tarifako 1.4 epigrafeko tasa aplikatuta aurreko egutegiko urtean ordaindu edo jasandako Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuotak itzultzeko.

Ondorioz, zerga egoitza Bizkaian duten zergadunei Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuoten itzulketa partziala egiteko prozedura ezarri behar da.

Hori dela bide, hauxe

XEDATU DUT:

**1. artikulua.—*Aplikazio eremua***

Ekonomi Itunean ezarritakoaren arabera onuradunaren zerga egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badago, itzulketak izapidetzeko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiak edukiko du.

**2. artikulua.—*Itzulketaren xedea***

Foru agindu honetan kuota hauen itzulketa araupetu da: gasolioa erosteagatik Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeko 50.1 artikuluko 1. tarifako 1.4 epigrafeko tasa aplikatuta aurreko egutegiko urtean ordaindu edo jasandako Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuotak.

**3. artikulua.—*Onuradunak***

Aipatutako aldian nekazaritzarako gasolio hobariduna erabiltzeko eskubidea eduki duten nekazariak eta abeltzainak (pertsona fisikoak zein juridikoak, gasolioa nekazaritzarako (baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintza barne) erabili dutenak, baldin eta jarduera horietarako Zergapekoan Zentsuan inskribatuta egon badira eta ondoko inguruabarretako batean badaude:

a) Pertsona fisikoak: itzulketaren zergaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenean nekazaritzaren etekinak aitortu dituzte.

b) Pertsona juridikoak: itzulketaren zergaldiari dagokion Sozietateen gaineko Zergaren aitorpenean nekazaritzaren etekinak aitortu dituzte.

### Departamento de Hacienda y Finanzas

**ORDEN FORAL 1096/2010, de 30 de abril, por la que se establece el procedimiento para la devolución parcial de las cuotas del Impuesto sobre Hidrocarburos soportadas por los agricultores y ganaderos por las adquisiciones de gasóleo y se establece el procedimiento para su tramitación.**

El Concierto Económico, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, establece que los Impuestos Especiales tienen el carácter de tributos concertados y que se regirán por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado.

Con efectos desde el 1 de enero de 2010 y vigencia indefinida el nuevo artículo 52 ter de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, reconoce en su apartado Uno el derecho a la devolución de las cuotas del Impuesto sobre Hidrocarburos, satisfechas o soportadas por los agricultores y ganaderos con ocasión de las adquisiciones de gasóleo que hayan tributado por el Impuesto sobre Hidrocarburos al tipo impositivo del epígrafe 1.4 de la Tarifa 1.ª del artículo 50.1 de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales y que hayan efectuado durante el año natural anterior.

En consecuencia, para la práctica de la devolución parcial del Impuesto sobre Hidrocarburos se hace necesario establecer el correspondiente procedimiento dirigido a aquellos contribuyentes cuyo domicilio fiscal sea Bizkaia.

En su virtud,

DISPONGO:

**Artículo 1.—*Ámbito de aplicación***

La Diputación Foral de Bizkaia será competente para la tramitación de las devoluciones, cuando de acuerdo con las reglas establecidas en el Concierto Económico, el beneficiario tenga su domicilio fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

**Artículo 2.—*Objeto de la devolución***

Será objeto de la devolución regulada en la presente Orden Foral las cuotas del Impuesto sobre Hidrocarburos satisfechas o soportadas por las adquisiciones de gasóleo que hayan tributado al tipo impositivo del epígrafe 1.4 de la Tarifa 1.ª del artículo 50.1 de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, que hayan efectuado durante el año natural anterior.

**Artículo 3.—*Beneficiarios de la devolución***

Los agricultores y ganaderos, personas físicas o jurídicas, que en el período indicado hayan tenido derecho a la utilización de gasóleo bonificado para uso agrícola y que efectivamente haya sido empleado en la agricultura, incluida la horticultura, ganadería y silvicultura, y que, además, en relación con estas actividades, hayan estado inscritos en dicho período en el Censo de Obligados Tributarios y que se encuentren en alguna de las siguientes situaciones:

a) Que, en el caso de personas físicas, declaren o hayan declarado rendimientos de actividades agrarias en la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente al periodo impositivo de la devolución.

b) Que, en el caso de personas jurídicas, hayan declarado rendimientos de actividades agrarias en las declaraciones del Impuesto sobre Sociedades correspondientes a los periodos impositivos de la devolución.

cve: BAO-BOB-2010a086

**4. artikulua.—*Itzulketarako eskubidea ematen duten gasolio kontsumoak***

Hauexek dira itzulketarako eskubidea ematen duten kontsumoak:

a) Bide eta lur publikoetan ibiltzeko baimena duten eta halakorik ez duten nekazaritzako (baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintza barne) traktoreen eta makineriaren motorrek egindako kontsumoak.

b) Erabilera bereko aparatuen eta tresnen motorrek egindako kontsumoak.

**5. artikulua.—*Eskabidea non, nola eta noiz aurkeztu***

Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeko 52 ter artikuluko lehenengo idatz-zatian ezarritakoaren arabera gasolioa erosteagatik ordaindu edo jasandako Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuotak, foru agindu honetako 2. artikuluan aipatzen direnak, itzultzeko eskubidea duten nekazariek eta abeltzainek idatzizko eskabidea aurkeztu behar dute eskubide hori erabiltzeko.

Eskabidea ustiategia dagoen eskualdeko nekazaritzako bulegoan aurkeztu behar da maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartean (biak barne), foru agindu honetan ezarritako baldintzak beteta eta finkatutako prozedurari lotuta.

Nolanahi ere, ustiategia Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo dutenek Ogasun eta Finantza Saileko Zerga Berezien Atalean aurkeztu behar dute eskabidea.

**6. artikulua.—*Itzuli beharreko zenbatekoa***

Itzuli beharreko zenbatekoa honela kalkulatuko da: egutegiko aurreko urtean nekazaritzan (baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintza barne) erabilitako gasolioa (milakoak, litroak) 0,998 koefizienteaz biderkatu eta horren emaitzako oinarriari Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeko 50.1 artikuluko 1. tarifako 1.4 epigrafeko tasa aplikatuko zaio.

**7. artikulua.—*Itzulketarako prozedura***

Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuoten itzulketa lortzeko ondoko hau aurkeztu behar da behar den eskualdeko nekazaritzako bulegoan edo Ogasun eta Finantza Saileko Zerga Berezien Atalean: «Nekazariek eta abeltzainek gasolioa erosteagatik jasandako Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuoten itzulketa partzialerako eskabidea».

Eskabidea idatziz egin behar da eta aipatutako tokietan emandako ereduari lotuta. Datu hauek agertu behar dira:

1. IFZ: 9 karaktere.

2. Gasolioa erregai gisa erabilitako gailuaren kodea, epigrafe hauen arabera:

   1. Traktoreak.
   2. Nekazaritzako makinak, traktoreak ez besteak.
   3. Motor finkoak.
   4. Beste batzuk.

3. Gasolio hobariduna erabili den ibilgailuen matrikulak.

4. Gasolio hobariduna erabili den makina edo aparatu bakoitzaren mota eta fabrikazio zenbakia.

5. Agiri batean jasotako gasolio hornidura bakoitzeko, edo hornidura multzo bakoitzeko: fakturaren zenbakia, data, gasolioa erosi den establezimenduaren txikizkariaren identifikazio kodea (TIK), erositako gasolio hobaridunaren bolumena (litroak) eta zenbatekoa (azken bi hauek bi hamartarrekin adierazi behar dira). Itzulketaren onuraduna Hidrokarburo Batzuen Txikizkako Salmentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboa ere bada, beraren txikizkariaren identifikazio kodea adierazi behar da.

**Artículo 4.—*Consumos de gasóleo que dan derecho a la devolución***

Los consumos realizados que dan derecho a la devolución son los siguientes:

a) Motores de tractores y maquinaria agrícola autorizados o no para circular por vías y terrenos públicos, empleados en la agricultura, incluidas la horticultura, ganadería y silvicultura.

b) Motores de los aparatos y artefactos empleados en igual destino.

**Artículo 5.—*Lugar, forma y plazo para la presentación de la solicitud***

Los agricultores y ganaderos a los que el artículo 52 ter de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, reconoce en su apartado uno el derecho a la devolución de las cuotas del Impuesto sobre Hidrocarburos satisfechas o soportadas con ocasión de las adquisiciones de gasóleo a que hace referencia el artículo 2 de esta Orden Foral, deberán proceder a la presentación por escrito de una solicitud de devolución para hacer efectivo dicho derecho.

Dicha solicitud se presentará en la Oficina Comarcal Agraria correspondiente a su explotación, entre el 15 de mayo y el 30 de junio inclusive, en las condiciones y de acuerdo con el procedimiento previsto en la presente Orden Foral.

No obstante lo anterior, en el supuesto de explotaciones agrarias situadas fuera del Territorio Histórico de Bizkaia, la solicitud se formulará ante la Sección de Impuestos Especiales del Departamento de Hacienda y Finanzas.

**Artículo 6.—*Importe de la devolución***

El importe a devolver será igual al resultado de multiplicar el tipo establecido en el epígrafe 1.4 del artículo 50.1 de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, sobre una base constituida por el resultado de multiplicar el volumen de gasóleo efectivamente empleado en la agricultura incluida la horticultura, ganadería y silvicultura durante el año natural anterior, expresado en miles de litros, por el coeficiente 0,998.

**Artículo 7.—*Procedimiento para obtener la devolución***

Para obtener la presente devolución del Impuesto sobre Hidrocarburos, deberá presentarse en la Oficina Comarcal Agraria o en la Sección de Impuestos Especiales del Departamento de Hacienda y Finanzas, la «Solicitud de devolución parcial de las cuotas del Impuesto sobre Hidrocarburos soportadas por los agricultores y ganaderos por las adquisiciones de gasóleo».

Esta presentación se realizará por escrito ajustada al formato facilitado en los lugares citados. En la solicitud deberá constar:

1.º NIF: 9 caracteres.

2.º Código correspondiente al medio empleado para la utilización del gasóleo como carburante, de acuerdo con los siguientes epígrafes:

   1. Tractores.
   2. Maquinaria agrícola distinta de los tractores.
   3. Motores fijos.
   4. Otros medios utilizados.

3.º Las matrículas de los vehículos en los que se ha utilizado el gasóleo bonificado.

4.º Tipo y número de fabricación de la maquinaria o artefacto con los que se ha efectuado el consumo de gasóleo bonificado.

5.º Por cada suministro o conjunto de suministros agrupados en un mismo documento: número de factura, fecha de la misma, Código de Identificación Minorista (CIM) del establecimiento donde se ha efectuado la adquisición, volumen de litros de gasóleo bonificado adquirido, e importe, ambos datos redondeados a dos cifras decimales. En el caso de que el beneficiario de la devolución sea a su vez sujeto pasivo del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, el Código de Identificación Minorista a consignar será el del beneficiario.

cve: BAO-BOB-2010a086

Hobaridun gasolioa txartelen edo txekeen bidez ordaindu bada, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Araudiko 107.1 artikuluarekin bat etorriz, aitortzaileak orokorrean zehaztu behar ditu ordainketa-modu horiek erabilita establezimendu berean egin eta ordaindutako horniketen guztirako litroak eta gero datu hori eskabidean adierazi guztira ordaindutako zenbatekoarekin eta erosketa egin den establezimenduaren txikizkariaren identifikazio kodearekin batera.

6. Onuradunari itzuli beharreko kuotak sartuko diren kontua: finantza erakundearen identifikazioa eta bezeroaren kontu kodea (20 digituak).

Eskabidearekin batera horniketa bakoitzeko eragiketak frogatzen dituzten fakturak aurkeztu behar dira, edo horniketa multzo bateko eragiketa guztiak hartzen dituen faktura.

**8. artikulua.—*Kuotak itzultzeko modua***

1. Bizkaiko Foru Ogasunak aurkezten zaizkion eskabideen arabera ezarriko du itzulketak egiteko modua. Itzulketak transferentzia bidez egingo dira; hau da, itzuli beharreko zenbatekoa onuradunak adierazitako kontura transferituko da.

2. Itzulketa bankuan helbideratzeko ondokoak bete behar dira:

1. Bizkaiko Foru Ogasunak bezeroaren kontu-kodearen titulartasunaren berri izan behar du (erakundearen kodea/sukurtsalaren kodea/kontrol-digitua/kontuaren zenbakia).
2. Bezeroaren kontu kodearen titularra eskatzailea izan behar da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

**Bakarra.—*Ogasun zuzendariaren ahalmena***

Ogasun zuzendariari ahalmena eman zaio foru agindu honetan ezarritakoa betearazteko behar diren xedapen eta jarraibide guztiak emateko.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2010eko apirilaren 30ean.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

(I-695)

En el supuesto de adquisiciones satisfechas mediante cheques-gasóleo bonificado o tarjetas-gasóleo bonificado, conforme a lo previsto en el artículo 107.1 del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por el Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio, el declarante deberá determinar de forma global por todos los suministros efectuados en un mismo establecimiento y satisfechos mediante la utilización de este medio de pago especifico, la cantidad de litros suministrados, y consignar este dato en la solicitud junto con el importe total satisfecho por este medio de pago y el Código de Identificación Minorista del establecimiento donde se ha efectuado la adquisición del carburante.

6.º Identificación de la entidad financiera y del Código de la Cuenta Cliente (20 dígitos de identificación de una cuenta del beneficiario), a la que se efectuarán las transferencias de las devoluciones.

Al escrito de presentación se acompañaran las facturas acreditativas de cada operación de suministro o del conjunto de suministros de gasóleo bonificado amparados en una misma factura, incluidos en las solicitudes de devolución.

**Artículo 8.—*Forma de efectuar la devolución***

1. La Hacienda Foral de Bizkaia acordará la misma en base a las solicitudes presentadas y efectuará la transferencia bancaria a la cuenta indicada por aquél.

2. La domiciliación bancaria deberá cumplir las siguientes condiciones:

1.ª Que la Hacienda Foral de Bizkaia tenga constancia de la titularidad del Código de Cuenta de Cliente (código de entidad/ código de sucursal/ dígito de control/ número de cuenta).

2.ª Que la titularidad del Código de Cuenta de Cliente corresponda al beneficiario de la solicitud.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

**Única.—*Habilitación al Director de Hacienda***

Se habilita al director de Hacienda, a dictar las disposiciones o instrucciones necesarias para la ejecución y cumplimiento de lo previsto en esta Orden Foral.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Bilbao, a 30 de abril de 2010.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

(I-695)

•

**Enkante iragarkia 18/2010, maiatzaren 3koa**

Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren Zerga-Bilketako Zerbitzuko Buruak,

Jakitera ematen du: Zerga-bilketako Zerbitzu honetan, Aprovechamiento Anual de Bienes Turísticos 2050, S.L., (IFZk, B-95180188 du) zordunaren aurka abiabidean den premiamenduzko administrazio-espedientean, zergen arloko kontzeptu batzuk direla tarteko Foru Ogasunarekin dituzten zorrengatik, gaurko datan honako hau erabaki dela:

«Besterentze akordioa: Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Araudian ezarrikoarekin bat etorriz, egin bedi enkante-sistema bidez honako ondasun hauen besterentzea:

**Bat zenbakidun lotea**

7316/3011 zenbakidun finka; 1596 liburukia; Marbella 1-eko 496 liburua; 171. orrialdea; Marbella 1-eko jabetza-erregistroa.

**Anuncio subasta 18/2010, de 3 de mayo**

El Jefe del Servicio de Recaudación del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia,

Hace saber: Que en el expediente administrativo de apremio que se sigue en este Servicio de Recaudación contra la deudora Aprovechamiento Anual de Bienes Turísticos 2050, S.L., con N.I.F. B-95180188, por débitos a la Hacienda Foral de varios conceptos tributarios, se ha dictado con fecha de hoy el siguiente:

«Acuerdo de enajenación: De conformidad con lo dispuesto en el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Bizkaia, procédase a la enajenación mediante el sistema de subasta de los bienes siguientes:

**Lote número uno**

Finca número 7316/3011; Tomo 1596; Libro 496 de Marbella 1; Folio 171; Registro de la Propiedad de Marbella 1.

cve: BAO-BOB-2010a086